

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko apirilak 7

188. zenb.

ARRASATE
MONDRAGO 2

GI-
DURA

Aste Santua
Herritik irteteko
arazorik ez

Mondraueko Atxabaltarrak

Irigoien (Mietza, Mietzerreka auzoan)

Kanpazar portuen gora goiezela, Akei pasaute gero, bati baiño gehixauri atentziñue deittuko eutsen bidiaz ezkerretara ikusten dan lur gorridun ortuek. Horren gaiñekaldetik dauen basarrixe Irigoien da, Mietza izenaz ezaunaue. Izen horren zergatixe inguruetan egon zien mietzetan (miñetan) dau.

Basarrixe baiño zertxobait beheratxuau gaur autoeskoliien pistje dauen lekuen, oin dala 60taka urte arte martxan egon zan miñerala karrietako kargalekue. Hortik garbiketean Antoña errekaraiño erueten zan kable bidez.



Gaur Mietzan Patxi Bengoa Sagasta, bertako semie, bere andrie Basili Ezenarro Badaia abadiñotarra eta euren seme-alabak bizi die. Patxi Ulgorreko 50. soziue izen zan, eta gaur jubiletako bidetan da.

Aurrerakuen tradiziñueri

jarraituaz Patxik gaur be badittu ardixek eta ganauek.

Lehen aittetuteko ortuko lur gorrixetako jeneruek Basilik plazan saldu izan dittu. Lur honeik oso lur samurrek die eta euzki begixen egoteran gox jeneruendako oso aproposak.



Badauke etxetik urrin barik Santutxo izeneko solo bat. Han inguruen i euen santutegitxoren bat. Etxiek berak pe badauko fatxadan santu hori gordeteko tegitxo bat.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Gatzagan,
erdi erdian...
**ZUHAITZ
JATETXEA**



**ARAMAIO
okindegia**

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

VE ECUADOR


Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE

Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Ameriketako urrea

Murgilduta gauden egoera ekonomiko kaskar honetan, ez da alperrikakoa historian azaltzen diren gertakizun batzuei gain begirada bat botatzea. Zer pentsa eman dezake Castillako inperioak Ameriketako urrearekin egin zuenaz Lobainako Unibertsitateko Haag Irakasleak ematen duen interpretazioak.

Inperioaren jokaera:


Lehengor estatuaren ondoan (Frantzia eta Ingalaterra), inperio berri bat sortu zen hereditari, ezkontza eta hautaketa zela eta. Carlos V. Inperioa: bere mende zituen Espainia, Holanda, Italia, Austria, Amerika...

Urre mordoak zekarkien jarraian Ameriketatik Penintsulara. Hortaz baliatuz, merzenarioak ordaindu eta bere botere politikoa eta militarra zabaldu zuen Inperioak. Ondorioz, aberats berrien eskaria gehitu zen alde batetik eta urrearen ordezkoa ere eraman behar zen Ameriketara.

Prezioak gora egin zuten Espainian, are gehiago urrea ez baitzen industrian inbertitu.

Baina ez zeuden lotan inguruko errege eta handikiak. Beraien moneta debalatu zuten Frantzian eta baita Ingalaterran ere.

Kanpoan merkeago erosteko aukera jarri zieten eta horixe egin zuten merkatariek. Urrearen truke erosi zuten kontsumorako behar zuten janari, jantzi eta tresneria.



Frantzia eta Ingalaterrako jokaera

Oso bestelako izan zen Frantzia eta Ingalaterrako Estatuaren jokaera. Ekonomia aldetik aurre egin zioten Inperioaren botere politikoa eta militarri.

Prezioak beheratu eta haien hornitzaile bihurtuz, zurrupatu egin zioten konkista bidez lortutako urrea eta beraien industria desarroilatu zuten, salmentan jasotako kapitala inbertituz, eta honela, gauza izan ziren militarri ere aurre egiteko eta bere agintea mugatzeko.

Jokabidearen zergatia

Batzuen eta besteen mentalitatea da arrazoi nagusia Haag Irakaslearen ustez:

— Castillako handikiak feudalismoko pentsakeran bizi ziren: eskulana gutxietsi egin zuten eta merkataritza eta industria ez ziren zaldunentzako ofizio duinak.

— Frantzia eta Ingalaterran, berriz, pentsakera burgesa zen nagusi: langileak, ongi organizatuak, puritanoak ziren handikiak, eta beren anima salbatuko zuten seinalea zen lurreko negozioetan arrakasta lortzea.

Desarroiloa lortzeko, ustez behar zuen guztia zuen, ez zuen holakorik lortu: mundu berri bat, teknologia eta zientzia, lanaren antolaketa, kapitalaren metaketa,... ez ote da mentalitatea, helburu batzuk lortzeko ekimena antolatzea daraman izpiritua, motorrik indatsuenetarikoa?

RUFINA OLASAGASTI

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1- 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Olliden (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Ereduneko kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Lihor Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: Beñardo

GORKA
ILEAPAINDEGIA

Ferrerias, 35 ARRASATE
 Tfnoa: 76 08 14 / 77 13 78

Memesa
79 42 22



ITURRIOTZ
taberna

Girorik
jatorrena!

Tfnoa: 79 16 04

I
R
T
A
B
E
R
N
A

Ferrerias kalea
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 56 11

••••
Txakurra naiz
eta harro nago

Betidanik esan izan da txakurra dela gizakia-ren lagunik zintzoena. Gizakia, berriz, ez da gure lagunik onena, ez! Aurkezpen modura, esan dezadan aita opor batzutan bide bazter baten aurkitutakoa izan nuela, eta ama, bertakoa, ardi txakurra. Ni ez naiz dotore orrazturik desfile eta holakotan ibiltzen denetarikoa, horretan ez dut izugarririk. Baina zerbaitetaz harro sentitzen banaiz, euskaldun izateaz da. Eta ez naiz bakarra. Arrasaten, hasi arratoi txakurretatik eta polizi txakurretara, %95ek euskarazko deiadar eta ferekak izan ditugu. Haserreak ez, horiek gehienetan erdarazkoak izan dira. Txakur euskaldunen kolektiboa pozik gaude orohar gure euskaldun izaeraz. Badira %5 euskararik ez dakitenak. Horiek oraindik ere "integratu bakoak" definitu genituen gure azken bileran, zoritxarrez, gehienetan erdi zaunkaka ibili behar izaten dugu elkar ulertu ahal izateko eta ez dakigu oraindik zeintzu diren beraien iritziak gai honekiko.

Berriro ere helduko diot idatzitxo honetan azaldu dudan kezkarri, hots, gure azken kongresuko gai nagusiari. Nolaz gure nagusiak "enperratzin" diren gurekin euskaraz mintzatzen eta ez duten gauza bera beraien artean egiten.

Bileran Argi txakurrak azaldu zigun arrazonamendu zuzenarikoa, nire ustet. Gure nagusigoaren gehiengo ez dator bat bere buruaren pentsamentuarekin edo bestela erabat zoratu nahi gaituzte apropos. Gu beraientzat bai eta eurak beste horrenbeste beren artean egiten ez badute, txakurrekin tratu berezi hori zergatik? Gizakiak ez ote du txakur izena merezi, ala, euskara benetan txakurrentzat egindako hizkuntza ote da? (txakur denentzako ez, bai...)

Zerbait pentsatu beharrean gara. Jakin ezazue arazo honen burubiderako, proposamen bat onartu genuela aho batez: ugazaba gurekin egon eta euskaldunekin erdaraz mintzatzen diren bakoitzean, orkatila kontrara zarra zarra egingo diegu gure errekatxoa. Alperrik izango dira orduan perrotis guztiak.

LAGUN

Zuzenketa

Joan den asteko baserriaren txokoa, ia parrafo osoa jan genuen, izugarrizko nahastea sortuz. "Eskumaldien Maria Luisa Egidazu Pagaldai bertako alabie, bere gizona Juan Luis Elizaran Elustondo Tolosaldeko Irurakue eta semiek Joxe Martin eta Aitor bizi zien. Ezkerrealdien barrez, Juli Arregi Amilleta bertako alabie, bere gizona Pedro Arana Belar, Mierterrekako Ugaldegaiñekue, Xefe euron semie eta Julin anaie Gregorio bizi zien" jarri behar zuen eta ez guri atera zitzaiguna. Barka hanka sartzea!

Oharra

Datorren astean ez duzue ARRASATE PRESSIK jasoko zuen etxeetan. Izan ere, Aste Santuetako oporren tarreak ez digu horretarako aukerarik eskaintzen. Aste honetan antzerako zerbait gertatu zaigu, ostegun santua erdi-erdian suertatzea; horregatik doa normalean baino orrialde gutxiagoz.

F **A** **N** **C** **Y**
F **A** **N** **C** **Y**
 Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

B **a** **s** **a** **b** **e**
j **a** **t** **e** **x** **e** **a**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
 Industrialdea
ARETXABALETA
 Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94

Aste Santuan kanpora irteteko asmorik?



Iñaki Agirrebeña
Komertziala
(26 urte)

Bai, aurten Landetara joango naiz. Beste urte batzutan eskiatzera joan izan naiz, baina aurten edurrik ez dagoenez, Landetara joateko asmoa daukat.



Mari Caceres
Langabetua
(22 urte)

Azken lau urteotan urtero irten naiz kanpora. Aurten ere Extremadura aldera joango naiz.



Santi Diez
San Viatorreko ikaslea
(21 urte)

Bai, ia urtero Palentziara joaten naiz. Familiako etxe bat daukagu bertan eta horregatik ia urtero bertara joaten gara.



Arantxa Bermejo
Okina
(25 urte)

Ez naiz joaten, lan egiten dut eta. Hemen egongo naiz, eta eguraldi ona egiten badu, mendian ibiliko naiz, baina hemen.



Nenus Morales
Ikasle eta irakaslea
(34 urte)

Ez dut inoiz irteten baina aurten konkretuki irtengo dut. Nire familia osoa Madrilen bizi da eta bertara joango naiz.



Jose Mari Zubillaga
Langilea
(44 urte)

Ez, aurten baserrian lana dugu eta nahiz eta beste urte batzutan irteteko ohitura eduki, aurten hemen geratzea tokatu zaigu.



Izaskun Unamuno
Ikaslea
(19 urte)

Oso gutxitan irteten dut kanpora eta aurten ere hemen geratuko naiz.



Karlos Aja
Komertziala
(27 urte)

Ez dut urtero irteten, baina aurten Galizia aldera joango naiz. Uste dut aurten dela Galiziarra joateko urte egokiena.



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

GIZA-ORIENTAZIOA

Kristalezko bola / Tarota

PILAR OCONHOR

Ordua hartuta: 79 67 65

ARRASATE
HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutze gorria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	71 44 52
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulantziak	45 87 44
Udaitzaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00
Matx irak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoentzako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterrongo liburutegia	
Monterron	77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna 8	
Egunez: Azkoaga, Ferrerías.	
Gauetz: Mozos, Pedro Deunaren.	
Ostirala 9	
Egunez: Español, Iturriotz.	
Gauetz: Camacho, Oxirondo.	
Larunbata 10	
Egunez: Amezuza, Santa Marina.	
Gauetz: Puy, Barrenkale.	
Igandea 11	
Egunez: Azkoaga, Ferrerías.	
Gauetz: Puy, Barrenkale.	
Astelehena 12	
Egunez: Español, Iturriotz.	
Gauetz: Guallar, San Antonio.	
Asteartea 13	
Egunez: Morales, San Andres.	
Gauetz: Estella, Mabatxategi.	
Asteazkena 14	
Egunez: Mozos, San Pedro.	
Gauetz: Azkoaga, Ferrerías.	

8 OSTEGUNA

ZINEA

“Esposa por sorpresa” (7,9.30)

ASTE SANTUKO ELIZKIZUNAK

- Goizeko 10etatik 12etara bakar-kako otoitzak. Arratsaldeko 6etan azken afaria. Eliza zabalik gaueko 12ak arte. San Juan Bataiatzailearen Parrokian.
- 8etan Jaunaren afariko arratsaldeko meza. Uribarriko Parrokian.

9 OSTIRALA

ZINEA

“Esposa por sorpresa” (7,10)

ASTE SANTUKO ELIZKIZUNAK

- 9etan Gurutz bidea, 11etan Elkarteko Penitentzia. 5etan Jesusen heriotzaren ospakizuna. 8etan Otoitzaldia Doloretak Ama Birjinari. San Juan Bataiatzailearen Parrokian.
- Goizeko 11etan Gurutz Bidea. Arratsaldeko 5etan Jaunaren nekaldiaren ospakizuna. Uribarriko Parrokian.

10 LARUNBATA

ZINEA


“Esposa por sorpresa” (5,7.30,10)

ASTE SANTUKO ELIZKIZUNAK

- 10etan Pazko gau-beila. San Juan Bataiatzailearen Parrokian.
- Gaueko 10etan Larunbat Santuko bijilia. Uribarriko Parrokian.

ZERAMIKA ERAKUSKETA MONTE-RRONEN

Pasa den asteleheneetik, zabalik dago Monterronen Leniz Zeramik Eskolan egindako lanen erakusketa. Datorren apirilaren 20a bitartean egongo da zabalik, eta Eskola honetako ikasleek eginiko lanak ikus daitezke bertan.



KIROLAK ASTE SANTUETAN

Datorren astelehen eta asteartean AEDk, Gaztetxeak eta Al Andalus elkarteak antolatutako nesken futbito txapelketa burutuko da. Astelehenean goizeko 11etan hasiko dira partiduak Zaldibarren eta asteartean ere ordu berean. Asteartean, eguerdiko 1etan jokatu da finala. Parte hartzeko interesa duzuenok, hiru elkarte horietara jo dezakezue.



Horretaz gain, asteartean Iñurrategitarrek Everest-ari buruzko hitzaldi-dipositibak emango dituzte Gaztetxean. AEDko Gazte Mobidak eta Gaztetxeak antolatzen dute eta arratsaldeko 7etatik aurrera izango da. Apirilaren 14ean Herri-Kirolen olinpiada burutuko da Zaldibarren. Herriko gazte taldeek hartuko dute parte. Olinpiada bukatu ondoren, bazkari bikingoa izango da Gaztetxean. Prezioa: 500 PTA.

ARGAZKI IKASTAROA

Elordui Argazki Taldeak antolatu eta Eskoriatzako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagunduta, argazki ikastaroa antolatu da Eskoriatzan. Maiatzaren 4ean hasiko da Kultur Etxean eta teoriako 8 ordu eta laborategiko beste 8 ordutako praktikak izango dira. Astearte, ostegun eta larunbatean emango dira klaseak. Ikastaroaren prezioa 1.000 PTAkoa da eta izena emateko Kultur Etxera jo dezakezue apirilaren 30a baino lehen.

11 IGANDEA**ZINEA**

"Fortaleza infernal" (5,7.30,10)

ASTE SANTUKO ELIZKIZUNAK

Goizeko 11.30etan Pazko Eguneko meza nagusia. 12.30etan erdarazko meza. Uribarriko Parrokian.

**ALTAMIRAKO JAIK**

Datorren apirilaren 17an Altamirako jaiak ospatuko dira. Egun horretan, goizeko 10.30ak aldera suzirian jaurtiketa eta dultzaineroekin hasiko dira ekintzak. 11.30etan haur jolasak egongo dira eta eguerdiko 1etan auzoko taberna zabalduko da. Arratsalde partean, 5etan marrazki lehiaketa egingo da; 6etan txokolatada, 6.30etan Lore Gazteak taldearen emanaldia, 7etan meza San Frantziskoko elizan eta gaueko 10etan Txinparta taldearen dantzaldiarekin bukatuko dira ekintzak.

LOURDES ETA SANTIAGORA ERROMESALDIK

Datorren maiatzaren 21, 22, 23 eta 24ean Lourdesera egongo den erromesaldian parte hartzeko interesa duten guztiek, zabalik dute izena emateko epea eta Arrasateko edozein parrokitarra jo daiteke horretarako. Bestalde, San Viator ikastolak urte Xacobeoa dela eta, Santiagora erromesaldia antolatu du. Bertan, nahi duten guztiek har dezakete parte. Bi aukera eskaintzen dira: ekainaren 19tik 26ra eta uztailaren 10etik 18ra. Bidaia Samoseraino autobusean eta Samosetik Santiagora oinez egingo da.

12 ASTELEHENA**ZINEA**

"Fortaleza infernal" (7,9.30)

NESKEN FUTBITO TXAPELKETA

11etatik aurrera hasiko dira partiduak. Zaldibarren. AED, Gaztetxea eta Al Andalusek antolatuta.

13 ASTEARTEA**ZINEA**

"Fortaleza infernal" (7,9.30)

NESKEN FUTBITO TXAPELKETA

11etatik aurrera partiduak. Zaldibarren. Finala: eguerdiko 1etan. AED, Gaztetxea eta Al Andalus taldeak antolatuta.

IÑURRATEGITARREN HITZALDIA

Iñurrategitarren hitzaldi eta Diapositiba emanaldia. Gaia: Everest. Arratsaldeko 7etan. Arrasateko Gaztetxean. AEDko Gazte Mobidak eta Gaztetxeak antolatuta.

MUSAKOLAKO KIROLDEGIKO ORDUTEGIA ASTE SANTUETAN

Musakolako Kiroldegiak ordutegi berezia izango du Aste Santuetako jai egunean. Osteguna 8, ostirala 9, igandea 11 eta astelehena 12 goizean bakarrik egongo da zabalik eta larunbatean, apirilaren 10ean egun osoz.

14 ASTEAZKENA**HERRI KIROLN OLINPIADA**


Herrikirolen olinpiada, herriko gazte taldeen artean. Zaldibarren. Ondoren, bazkaria Gaztetxean. Prezioa: 500 PTA.

**AEDK ANTOLATUTAKO MENDI IRTEERA ETA MENDIKLETA IBILALDIA**

AED Elkarteko Gazte Mobidak mendi irteera bat antolatu du datorren apirilaren 15ean eta mendikleta irteera apirilaren 19an Orkatx, Besaide eta Murruxikoren laguntzaz. Mendi irteeran Hiru handiak hiru egunetan egiteko asmoa dago: Anboto, Aizgorri eta Gorbeara. Eta mendikleta irteera, bestalde, igandean egingo da, Arrasate-San Prudentzio-Zubilaga-Urkulu-Bedoña-Arrasate ibilbidearekin. Irteera hauetan parte hartzeko interesa duzenok, 79 54 46 telefonora dei egin.

HITZALDIA: "EUSKAL HERRIKO EGOERA NAHASIAREN AZTERKETA ETA IRTENBIDEAK"

Datorren apirilaren 21ean AEDk antolatuta arratsaldeko 7etan eta Monterronen, "Euskal Herriko egoera nahasiaren azterketa eta irtenbideak" izeneko hitzaldia egongo da. Bertan, Elkarri eta Gesto Por La Paz, Garrasi Isila, elkarteetako ordezkariak hartuko dute parte. Partaideak Txema Auzmendi, Elkarrikoa eta Juan Mari Tolosa, Gesto Por La Pazeko ordezkaria izango dira eta Jon Sarasua moderatzaile.



Jende gehiena azken orduan mugitzen ari da bidai-agentzietan.

Arrasatearrak ez daude Aste Santua etxean pasatzekotan

Joerak bakarrik ikusita, Aste Santuetako oporrak antolatzeko orduan, zail da esatea krisiak arrasatearren artean eraginik izan ote duen edo ez. Arrasateko hiru bidai-agentzietan galdeketa egin eta gero, herritik irtetzea erabaki duen jendearen kopurua kontuan hartuta badirudi krisiak ez duela inolako eraginik izan; bidaia-mota eta aukeratutako tokiari begiratu ezker, berriz, badirudi jendeak bidaiatzea erabaki duela baina merkeago, umilago.

Ecuador Bidaiak agentzian jendea azken orduan ari dela mugitzen zioten eta sekula baino jende gehiago, "iaz baino %20 gehiago". Bertan esandakoaren arabera, merkeagoak izateagatik, jendea gehienbat bidai-antolatuetan ari da sartzen. Aipatutako agentzian, estatu barruan, Kanariar Irlak eta Mallorca dira aukeratuenak eta atzerrian, berriz, London, Paris eta Praga.

Eroski Bidaiak agentzian ez zuten kopuruari dagokionez eta iazko urtearekin alderatuz gero, aparteko igokadarik nabar-

mentzen, baina ezta beherakadarik ere. "Dena dela -zioten bertakoek- agian goizegi izan daiteke hitz egiteko, aurten Aste Santua inoiz baino lehenago iritsi da eta jendea azken orduan dabil erreserbak egiten. Joerak betikoak dira, familiak Salou edo Benidorm-era eta gazteen aldetik autobusez antolatutako zirkuitoak, Paris, Ginebra, Amsterdam edo Italiara. Landetara joateko eskariak ere asko ugaritu dira, baina Kanariar Irlatera joatekoak gutxitu. Uste dut jendea ez dagoela opor barik geratzekotan, baina gertuagokoak aukeratzen dituela, merkeagoak".

Baskotourren ere, antzerako zerbait aipatzen zuten, jendea ibili badabilela, baina gastatzeko orduan toki merkeak aukeratzen ari dela. "Familiak Mediterraneora jotzen dute eta bikote gazteek, berriz, Europara. Bost egunetarako antolatzen diren bidaiak izaten dira gehienak, baina egun gehiago dituenak urrunagoko tokiak aukeratzen ditu. Akaso iaz baino jende gutxiago dabil, baina ez da nabaritzen".

USTEAK USTE

EUSKARAREN ALDE

Pasa berria dugu "Korrika". Beti izan da jende asmo mugitzen duen ekintza. Euskarak alde eta era guztietako laguntzak behar ditu, baina ez dirua bakarrik. Baita horrelako laguntzak ere, gure barnean sar dadin euskararen aldeko ardura. Jende asko gure herrian zehar pasatzean, gazte eta ume batez ere, denok euskararen alde. Zer ote du gure euskarak sentitu genuen emozioa sortarazteko?

Joan zen larunbatean, ETB-1ean "Ameriketako euskaraz" izenpeturiko programan, Oñatiko unibertsitatean euskara ikasten egondako Iparramerikako hainbat pertsona ikus ahal izan genituen. Harrigarria haiei entzun geniena: euskaraz, eta erraztasun osoz.

Izugarrizko poza hartu nuen, ametsetan egon nintzela esango nuke. Handik minutu batzuetara, zeru hartatik jeitsi eta Arrasateko mundura itzuli nintzen, lehen poza zena tristura bihurtu zitzaidalarik; ez zaigu ezer falta oraindik...

Urrats asko ematen ari dira, bai eskoletan bai zenbait erakunde publikotan, baina ez dugu ezertxo ere aurreratu enpresa munduan, nahiz eta "Euskalan" taldea han eta hemen ahalegindu. Gogor eta animo...!.

JOXE RAMON ELORTZA

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-
JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

J. ROBERTO GUERRA Drak.

**ORDUTEGI ALDAKETAREN BERRI
ematen dizu**

**Apirilaren 19tik aurrera,
arratsaldeko 4.15etatik 7.15etara izango da,
astelehenetik ostiralera
Tfnoa: 79 80 80**

Otalora Lizentziatua, 29- 2. ezk. ARRASATE



Euskararen Hitzarmenaren aurkezpen saioa Donostian egin zen.

Hiru urte ondoren, Hitzarmena luzapen beharrean

Euskararen Hitzarmenak hiru urte bete ondoren, Jaurlaritzari beste hiru urtetarako plangintzan parte har dezan, dirulaguntza berria eskatuko zaio eta sinatzaileei beste hiru urtetarako sinatzea proposatuko zaie. Dirulaguntza eskariari baietza emango dio Jaurlaritzak, baina Hitzarmenaren zentzua zabaldu egin beharko da. Euskararen Hitzarmena sinatzaileen arteko harreman idatzietara mugatu da, eta aurrera begira, dirulaguntza ematekotan Hitzarmena beste maila batzuetara zabaltzea eskatu du Jaurlaritzak: sinatzaileen arteko ahozko harremanetara

eta erakundeen barne-funtzionamendura..., idatzizko harremanei jarraipena emanez. Orain arte, Jaurlaritzak urtero milioi t'erdiko dirulaguntza eman dio Hitzarmenari.

Euskararen Hitzarmena hasieran 38 erakundek sinatu zuten eta, gaur egun, 92 dira bertan daudenak. Sinatzaileen kopuruari eta idatzizko harremanei dagokienez, orain arteko balorazioak baikorrak izan dira, %90ean bete egin baita. Jon Zuazabeitiak, Hitzarmeneko teknikariak, zioenez, hemen-dik aurrera, erakunde desberdinei tratamendu desberdina eman beharko zaie.

Aurrekontuak atzerapen handiz

Aste Santuetako oporraldia bertan da eta oraindik aurrekontuen onarpenerako ez da aurrerapausu nabarmenik ikusten. Ino Galparsoro Hazienda Batzordeburuak zioenez, batzorde desberdinak egindako eskariak, aurten egon daitezkeen sarrerak baino handiagoak dira. Ondorioz, aurrekontuen onarpena gero eta atzerago.

Hirugarrenean onartu jubilatut etxeen likidazioa

Kostata eta hiru aldiz aurkeztu ondoren, Gobernu Batzordeak azkenean onartu du Zahar Etxeei buruzko 1992ko likidazioa. Dirukopuruetan sartuta, Musakolako jubilatuen etxean urtea 143.000 PTako defizitaz bukatu zuten, Uribarrin 108.000 PTakoaz eta Santamainan parra; Aba-roan, berriz, 187.000 PTako defizitaz, baina argia, ura eta berogailuari dagokienez, mantenimenduko defizita erdi-estaliz, 161.000 PTako superabita izan zuten.



GRONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

Txutxumutxuak



San Viator Txikiko 28 haurrek 12 egun pasa dituzte Alkizako barnetegian. Billabonatik 5 kilometrotara dagoen barnetegi honetan, eskulanak, txontxongiloak, pelikulak ikusi, antzerkia eta beste eskurtsio batzuk ere egin dituzte. Itsasontzian ibili dira, mendi irteerak egin dituzte, baserri bat ere bisitatu dute eta euren arteko Olinpiadak ere burutu dituzte. "Oso ondo pasatu dugu, bai guk irakasleok baita ikasleak ere" esaten digu irakasle batek.



Hona hemen Lancaster hiritik elkartrukean etorritako neskato kuadrila. Ahizke-Cimek antolatuta, uztailean tokatuko zaie Arrasateko koei Ingalaterrara joatea. Ongi etorri!



Erguingo Eskolako 15 ikasle eta irakasle bat Tenerifera joango dira maiatzaren 18tik 24ra. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolatutako lehiaketan aurkeztu zuten lanari esker, Tenerifeko Santa Kurtz, La Laguna, Teide... ikusiko dituzte; baita beste ikasle batzuk ezagutu ere. Ondo pasatu!



Jon Salaberri arrasatearra, *Argia* aldizkariako azken zenbakiko azalean agertzen zaigu. "Oso ezaguna egin da azken bolada honetan Jon Salaberri" esaldiarekin hasten da barruko elkarriketa luze bat, eta bai, hala da, lan handia egiten ari da HIESaren kontrako borrokan.

Arrasate eta inguruko hainbat dendatan orain arte banatu den esne pasteurizatua ez da gehiago modu berean banatuko. Bilbotik ekartzen zen esnea eta aukera hori moztu egin denez, Gureak banatuko du eguneko esnea. Arrasateko dendari batzuk hasiak dira esne hori saltzeko eskariak egiten.

BIONA

Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE

PAZI-OLA SA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



Orain dela hamabost bat egun, Xabier Zubia gazteak Pirineoko Bisaudin mendian Imanol eta Iñaki lagunekin parapente egiten zebilela erori eta bizkarrean kolpe handia hartu zuen. Helikopteroz erreskatatu

eta Jakako ospitalean egon zen astebetez. Orain, etxean dago, baina apurtuta dituen bi saiheusak osatu arte, beharko ditu hilabete batzuk. Hala ere, desiatzen dago berriaz parapente egiten hasteko.

Iñurrategi anaiak, Joseba Urkia, Jon Ander Loidi Jabier Zuñiga eta Fernando Uribesalgo hurrengo irteera prestatzen ari dira. Maiatzaren 24ean K-2runtz irtengo dute eta hasiak dira Gorosti jatetxean janaria prestatzen, Eskoriatzako Zubian boteratzeko. 40 kilo poteratuko dituzte: txahal biribilkia, txangurro betea eta piper beteak. "Nor k ez luke igoko, halako janari goxoekin?" esaten du Jorge Oiarbide sukaldariak.



IZEN PROPIOAK

● **Jentil Ona** elkarte izan da, **Unamuno** eta **Aperribaik** ordezkaturata, IX. gazteen mailako doke txapelketaren irabazlea. Igandean burutu zen txapelketan, Jentil Onak 53-16 punturen aldeaz irabazi zien **Uribarriko** elkarteko **Iker Saizar** eta **Aitziber Zumalderi**. Hirugarren postuan **Torrepe** sailkatu zen, **Andoni Bragado** eta **Aitor Aiastuirekin** eta laugarrenean **Iturripe, Mikel** eta **Kepa Arkauze**kin.

● **Roman Gonzalez, Alberto Gorroño**goitia eta **Mari Arroyo** dira Umezaintzako Zuzendaritza Batzordeko kide berriak. Lehenengo biak gurasoen ordezkariak izango dira eta hirugarrena irakasleena.



**ETXEPARE - BILINTX
LIBUBUDENDA**

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA
Tfnoa: 76 40 50

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

Laso-Arregiⁿ, Kodak-Express kalitatean

egindako errebelatuekin, bidaiarako
aukerak izango dituzu!

**Karrete bat errebelatzera
ekartzeagatik, parte hartu eta
irabazi:**

1. saria

*Cancún, Santo Domingo, Acapulco, Cuba, Miami edo
Egiptorako bidaiak (2 lagunentzat)*

2. Saria

EuroDisneyra bidaiak (2 lagunentzat)

3. Saria

Canariaserako bidaiak (2 lagunentzat)

**Erosten duzun Kodak Gold II
karrete bakoitzeko, honako
hauek irabazteko aukera:**

1. Saria


*Cancún, Santo Domingo, Acapulco, Cuba, Miami edo
Egiptorako bidaiak (2 lagunentzat)*

2. Saria

Canariaserako bidaiak (2 lagunentzat)

3. Saria

Meliá Hoteletako asteburuko bonoak.



VACACIONES DE PELICULA Kodak Gold II

Pide tu
tarjeta al
comprar
una película
Kodak Gold.

EN ESTA TARJETA HAY UN VIAJE. SEGURO. ENCUENTRALO.

**Txartel guztiek
dute sariren bat.
Asmatu konbinazioa
eta irabazi!**

Laso-Arregi Argazkia

Grupo San Juan. Tfnoa: 79 12 75 ARRASATE

**Eta orain, LASO-
ARREGI ARGAZ-
KIAN zure argaz-
kiak Compact-
Discen!!!
Zeure oroitza-
pe-
nik onenak tele-
bistaz ikusi ahal
izateko!**

Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Aste Santuaren atarian, oreka nagusituz

Gauzak poliki-poliki argituz joango zirela idatzi genuen joan den asteko komentarioan, eta beste batzutan bete-betean asmatu dugun bezala, oraingoan huts galanta egin dugu, gauzak argitu beharrean nahastu egin baitira. Orain bi asteko sailkapenei begirada bat emanez gero, ezaugarri nagusia taldeen arteko

diferentzia estua zen. Azken bi ihardunaldietan gertatu diren emaitzen ondorioz, estutasuna areagotu besterik ez da egin. Beraz, bigarren faseari bukaera emateko hiru partidu bakarrik falta direnean, zail da sailkapeneko oihan beltzetik belardi zabalik ikustea. Ah! Aste Santua, jai santua.

NUEVO
taberna

Bañez Dokforea, 15
Tfnoa: 79 99 88
ARRASATE



DEBA
GARAIA

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia
Tifnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?


SEGURASKI BAIETZ !

a taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZULOAK	4	4	0	0	25	2	8
ARGI IBILI	4	4	0	0	24	6	8
ARRASATE KIR.	4	3	0	1	15	10	6
NUEVO TABERNA	4	2	0	2	12	13	4
ARRASATE KRIST.	4	1	0	3	8	13	2
PEPELUS	4	1	0	3	7	24	2
TXOKO TAB.	4	1	0	3	3	13	2
LOS DIMY	4	0	0	4	8	21	0
GUZTIRA	32	16	0	16	102	102	32

b taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZIZTI-ZAZTA	4	4	0	0	26	6	8
SUM. UGARTE	4	4	0	0	21	8	8
DIEGO ANTONIO	4	3	0	1	22	12	6
KAIXO LENIZ	4	2	0	2	20	16	4
LORAT. POTROAK	4	1	0	3	11	16	2
NOSKI	4	1	0	3	18	23	2
MONTERREY TAB.	4	1	0	3	9	22	2
PUBLICOOP	4	0	0	4	4	28	0
GUZTIRA	32	16	0	16	131	131	32

c taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ADELAIDA	4	3	1	0	13	4	7
MIKELOS	4	3	1	0	9	4	7
NOTXINGAN FLO.	4	3	0	1	13	8	6
ZULUS	4	1	2	1	12	10	4
GURE LEKU	4	1	1	2	9	13	3
DANOK LAGUN	4	1	0	3	7	13	2
JODO FLORO	4	1	0	3	7	10	2
BIZKORRAK	4	0	1	3	3	11	1
GUZTIRA	32	13	6	13	73	73	32

d taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
URMAY B. K.	4	2	1	1	12	10	5
TRIKITI	4	2	1	1	11	6	5
MOTZ	4	2	1	1	11	10	5
LEINTZ GARAGAR.	4	2	1	1	12	11	5
KOXXAS	4	2	1	1	13	13	4
LOS HERDIA	4	0	3	1	9	12	3
LASO ARREGI	4	0	2	2	8	10	2
BETRAYER	4	1	0	3	12	16	2
GUZTIRA	32	11	10	11	88	88	32



ANDONI OROBENGOA (Zaldibar eta Uribe-auzoko Txapelketako antolatzailea)

Andoni Orobengoa, Zaldibar eta Uribe Auzoko futbito txapelketetako jokalaria eta antolatzailea da, nahiz eta azken txapelketa honetan kolaboratzaile lanetan diharduela aitortu. Alde horretatik, bi txapelketei buruz hitz egin dezake. "Zaldibarko Txapelketa asko igarten da antolaketa bat dagoela; bestea askoz ere txikiagoa da, baina on-

dorengo urteetan jarraipena izateko aukerak dituela uste dut".

Zaldibarren ia mila pertsona dabilta jokoan, Uribe Auzoko txapelketan, berriz ehun eta piku. Dirutan ere, Zaldibarren diru piloa mugitzen dute eta Uriben oso gutxi. Argi dago, beraz, txapelketa kontzeptu desberdinak dira. "Jokoan ere diferentziak daude, Zaldibarren jendea pres-

tatuta joaten da eta agian horregatik, lehiakidetasun gehiago dago. Hemen Zaldibartik kanpo geratutakook jokatzeko dugu".

Normala denez, bat beharrean bi pronostiko eskatu behar Andoniri. "Zaldibarren Argi Ibilik irabaziko duela uste dut eta Uriben Alpagata Turbo edo Soakoakoek, nahiz eta Auf Dem Koffer, nire taldea, ere hor egon".

ITURRIOTZ
taberna
Girorik jatorrena!
Tfnoa: 79 16 04

AMAJUR
taberna
EGUNEKOMENUA • AFARIAK • JAUNARTZEAK
Zuloaga, 6 Tfnoa: 77 04 79 ARRASATE

Bodisca s.l.
Zeramikako pabimentu eta gaineztaldurak
Otalora z/g. Zarugalde, 3 Tfnoa: 79 65 25 ARRASATE

I
R
T
A
B
E
R
N
A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

BELARRIRA

◆ **Apuztuak**

Zaldibarren txapelketa baino gehiago jokatzeko da askotan; kasu batzutan, ohorea, beste batzuetan, berriz, erronka pertsonalak jartzen dira tartean... eta noiz behin, izpirituaren ametsak alde batera utzi eta asmo materialagoei kasu eginez, afariren bat edo beste jartzen da jokoan. Esate batera, joan den astean Motz eta Los Heredia taldeek, baba-jana nork ordaindu jarri zuten mahai gainean, eta gutxitan erabili da espresio hori hain ondo. Partidua bukatu, eta 3nako emaitza markagailuan; penaltiei esker, Motz taldekoei Bodeguilla-ra joan eta platerekoa jateko lana, Heredia-koei gauza bera eta gero ordaintzekoa, noski.

◆ **Garrantzitsuen ik**

Datorren ihardunaidiko partidurik interesgarrienak honako hauek dira: Suministros Industriales Ugarte - Diego Antonio, Adelaida Haizea - Notxingan Florest, Leniz Garagardotegia - Urmay Burger King, eta Zuloak - Arrasate Kirolak.



Zaldibarko Futbito Txapelketako bigarren fase honetan, orokorrean begiratuta, noski, parekotasuna da nagusi. Hala ere, batzuetan egoera orokor hori zalantzan jartzen duten emaitzak gertatzen dira. Joan den asteko ihardunaldian, esate batera, Argi Ibilik 7 gol sartu zizkion Arrasate Kirolak taldeari, Zizti-Zaztak 6 Diego Antoniori eta Noski taldeak 10 Publicoop-i. Aurrez, jendeak nekez imajinatuko zituzkeen horrelako emaitzarik.

EMAITZAK

A TALDEA

Argi Ibili 7 Arrasate Kirolak 1
Zuloak 2 Nuevo taberna 0
Pepelus 4 Los Dimy 2
Txoko taberna 0 Arrasate krist. 4

B TALDEA

Sum. Ind. Ugarte 5 Kaixo Leniz 4
Zizti Zazta 6 Diego Antonio 2
Noski 10 Publicoop 0
Lorategi Potroak 3 Monterrey tab 4

C TALDEA

Mikelos 2 Notxingan Florest 1
Adelaida Haizea 5 Danok Lagun 0
Zulus 3 Gure Leku 3
Bizkorrak 1 Jodo Floro 2

D TALDEA

Trikiti 1 Urmay B. K. 2
Leintz Garagar. 2 Laso Arregi 1
Betraye 4 Koxkas 5
Los Heredia 3 Motz 3

**ZARUGALDE
KALEAN...**

**BRANKA
TABERNA**

Trikiti S.L.

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 17

Zaldibar

08.45 Bizkorak / Gure Leku
 10.00 Lorategi Potroak / Publicoop
 11.00 Sum. Ind. Ugarte / Diego Antonio
 12.00 Adelaida Haizea / Notxingan Flo.
 13.00 Leniz Garagar / Urmay B. K.
 14.00 Zizti-Zazta / Kaixo Leniz
 15.00 Pepelus / Arrasate Kristaldegia
 16.00 Txoko taberna / Los Dimy
 17.00 Los Heredia / Koxkas
 18.00 Danok Lagun / Mikelos
 19.00 Betrayer / Motz

Igandea 18

Zaldibar

08.45 Trikiti / Laso Arregi
 10.00 Zulus / Jodo Floro
 11.00 Noski / Monterrey tab.
 12.00 Zuloak / Arrasate Kirolak
 13.00 Argi Ibili / Nuevo tab.



Zerupean jokatzen den beste edozein txapelketetan bezala, Uriben ere, eguraldiaren baldintzek jokoan eragin handia izan dezakete, inoiz ez baita berdina eguzkiaz edo euripean jokatzea, elurra ez aipatzearren.

URIBE AUZOKO FUTBITO TXAPELKETA

a taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ANBOTOSTE K. T.	2	2	0	0	6	3	4
KE OXTIAS!	2	1	1	0	10	3	3
GANBELAS	2	1	0	1	10	2	2
POTROSORRI	2	1	0	1	5	9	2
TABERNIKOLAS	2	0	1	1	3	5	1
EZKINAKO HONTZAK	2	5	2	5	9	14	0
GUZTIRA	12	5	2	5	36	36	12

b taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ALPARGATA TURBO	2	2	0	0	8	4	4
AUF DEM KOFFER	2	2	0	0	3	1	4
LAUTHERBRUNNEN	2	1	0	1	6	6	2
SOKOAKOAK	2	1	0	1	7	8	2
BAYERN DE LENIZ	2	0	0	2	4	7	0
BAYERN PROMESAS	2	0	0	2	3	6	0
GUZTIRA	12	6	0	6	31	31	12

Aurreko batean aipatzen genuen bezala, Zaldibarkoaz gain, bada beste txapelketarik herrian, Uribe Auzokoa hain zuzen ere. Guztiak ez, baina txapelketa honetan dabilzan gehienak Uribe bertakoak edo ingurukoak dira. "Bigarren mailako" txapelketa bategaz hitz egiten zuen antolatzailetariko batek, talde gehienak Zaldibarren kanporatuak izan direlako, ez beste ezergatik.

Tripublik

Kanpatorpea, 2

Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
- Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •



Arrasate, 'kanpotarrez' beteta

Beñardo Kortabarría

Arrasaten, jaiotzez arrasatear ez direnek betetzen dituzte herriko postu garrantzitsuenetariko asko. Hasi alkatetzatik, segi hezkuntzan, kooperatibak edo komunikabidetan nortzuk dauden aztertu... eta kanpotarrak dira nagusi. Batzuk, gainera, atxabaltarrak dira.

KARGU ASKO KANPOTARRENTZAT

Nonbaitetik hasi behar denez, etxeari lehen begirada. Arrasateko komunikabideen


zati handi baten monopolioa kanpotarren esku dago: Txema Urzelai DVko korrespondentsala, nahiz eta mondragoetar oso sentitu, donostiarra da jaiotzez. Beste horrenbeste esan daiteke El Correo-ko korrespondentsalari buruz, Rafa Fernandez Arestiri buruz, Bilbon jaio baitzen. Mikel Irizar, orain arte ARKOk lehendakaria izan dena, berriz, Ormaiztegin jaiotakoa da.

Bizitza publikoko beste arlo batzuetara begiratz gero, antzerako egoerak aurki daitezke; politikoak, noski, ez dira salbuespen. Arrasatearrek aukeratutako zinegotzien artean, Alkatea alde batera, ma-


kina bat kanpotar daude: PSOEko Paco Garcia, Blanca Roncal auritzarra..., EAJko Juan Jose Uriarte bermiotarra, Marisa Larrañaga edo Juan Carlos Garitano antzuolarra. "Nire ama hemengoa zen, -zioen Juan Carlos Garitanok eta bizi izatera etorri aurretik, ondo ezagutzen nuen Arrasate, kuadrila ere banuen ordu-rako, beraz ez nuen izan bertako bizitzan integratzeko arazorik. Hasiera hasieratik hemengo jendea jatorra eta zabela iruditu zitzaidan, hizkera alaiekkoa. Jaioterria, berriz, nik utzi nuenetik asko aldatu da, onera, noski, eta gainera ez dut harremanik galdu, urtero joa-

ten naiz kintoen afarira. Antzuolar edo arrasatear? bada egia esateko, erdipurdi, bihotz txikia Antzuolan daukat baina Arrasate ez daukat saltzeko".

Udaletxean bezala, hezkuntza-munduan ere, protagonismo handia dute kanpotarrek, besteak beste, hor daude Xabier Agirre, Erguin Eskolako Zuzendaria, alegitarra, Edurne Erauskin San Frantzisko Xabier Ikastolako zuzendaria donostiarra, Txaro Iraeta, beste donostiar bat Almenen, Eskola Politeknikoko zuzendaria, Inazio Lakuntza, tolosarra, Rosario Raemón Mertzederietakoa zaragozarra, edo San Andres Eskolako Ikasketa Burua,



Jose Mari Eraña, Udaletxeko pertsonal-burua.



Xabier Zubizarreta, Arrasateko Alkatea.

Nati Zugasti, izatez Lizarrakoa. “Sei urte nituela etorri nintzen hona. Aita irakaslea zen eta Garagartzako eskolara etorri ginenean. Txikia nintzen eta gehienok etorri ginenez, ez nuen diferentzia handirik nabaritu. Garagartzan euskaraz hitz egiten genuen eta ia ikasi nuen, baina gero Arrasatera jaitxi ginenean, galdu egin nuen. Dena dela, ikasteko gero baliogarri izan zait Garagartzako egonaldia. Hemengo jendea ez da beharbada naparrak bezain zabala, baina beste kualitate batzuk ditu. Jaioterria maite dut, baina hemen oso gustora nago”. Adibide batzuk besterik ez dira izan orain artekoak, baina gehiago izan zitezkeen: Jose Felix Diaz de Tuesta euskara teknikaria, Iñaki Txintxurreta idazkaria, Juan Jose Arrieta Euskadiko Kutzako zuzendaria, Javier Mongelos MCCko burua, Jone Astigarraga Santamainako Zentruko arduraduna, Jose Mari Astigarraga parrakoa, Txus Brizuela saskibaloitaldeko entrenatzailea, Anton Egia Ertzainburua, Julio Galarta pintore famatua, Joxemari Mujika AEDko lehendakaria.... Herriko kargu estrategiko ugari kanpotarrenak izanik, arrasatearrek badute kezkatzeko motiborik.

ATXABALTARREN TXANDA

Irakurle finenak konturatuko ziren dagoeneko, aipatutakoen artean oraindik ez dela atxabaltarren aipamenik egin, eta komeni komeni da, hemendik hiru kilometrotara jaiotako 491 lagun baitaude Arrasaten, 240 gizona eta 251 emakumezko. Atxabaltar guztien iriztiak jasotzea ezinezkoa da, baina batzuk badira ordezkari hori, neurri batean, eraman dezaketanak. Hasteko, Xabier Zubizarreta, mondragoetarren Alkate atxabaltarra. Bera Arrasatera lanera 1963. urtean etorri zen eta bizi izatera 1976.ean, “Andrea sokatirire irabazi eustelako, aldapan behera samurra da eta”. Integraziorako arazorik ez zuen izan Xabierrek, “entrenamendu haundixe neuken ordureko”. Jaioterria zorionez oso hurbil ikusten ei du Alkateak, eta atxabaltarra edo mondragoetarra izatearen artean “bixek” aipatzen ditu, “baina ordena horretantxe”. Mondragoetarrek Alkate izendatu zutela ikusterakoan, zer sentitu ote zuen Mondragoeko Alkate atxabaltarrak? “Etxaixat, arrasatearrak atxabaltar bat izendatzen euelako, edo besteik barik, izendatzen ninduelako zan, baina lelengotan zama

ikaeragarrix; Dana dala, gero, erueten be oso ondo lagunketan justiek. Hortik aparte, akabera bako sentipen, esperientzia etabar”. Eta nola sentituko ote dira arrasatearrak, Atxabaltako Alkate bategaz? bada, Xabierrek ez du dudarik, “Zela sentituko dituk ba? hemen etxien bezalaxe!”.

Alkatea bezala, Udaltzainburua, Jose Luis Etxeberria “Porru” Aretxabaletan jaio eta bertan urte askoan bizi izandakoa da. “Bederatzi urte daramatzat hemen bizi izaten eta egia esan, asko kostatzen zitzaidan erabakia hartzea, ondo pentsatutako erabakia izan zen, Aretxabaletan ondo bizi nintzen eta. Behin erabakia hartu eta gero, integraziorako arazo handirik ez nuen izan, ordu-rako hemen nengoen lanean eta jende asko ezagutzen bainuen eta uste dut neure izaera ere nahiko zabala dela; beraz, integraziorako arazorik ez nuen izan”. Udaltzainburua atxabaltarra dela jakinda arrasatearrek trankil egoterik ba ote dute? “Begira, atxabaltar eta mondragoetarren arteko kontu hori ondo etortzen da ambientea jartzeko, baina uste dut, herri biak elkarrengandik oso gertu daldela, eta ez naiz distantzia fisikoz hitz egiten ari; bestea

◆ ◆ ◆ ◆
JOSE MARI ERAÑA
“Erdi-hiri honetako bizitza urbanoa atsegindut, aberatsagoa da”

◆ ◆ ◆ ◆
XABIER ZUBIZARRETA
“Integrazio arazorik ez neuen izan, entrenamendu haundixe neukelako”



Nati Abasolo, Udal Euskaltegiko zuzendaria.

ondo dator, noiz behinka ton-tokeriak esan, barre egin eta estresa kentzeko; gainera, uste dut komenigarria ere badela. Orain urte pare bat, Maritxu Kajoi gauean, urtero botila eta eskapularioetan agertzen den Aretxabaletaren auzotasunari erantzunez, atxabaltarren independentzia iragarpena iritsi zen. Horrelako gauzak ondo daude, barre egin eta katxondeorako, baina gainerantzean uste dut bi herrien arteko harremana oso ona dela. Neuk, gorputza hemen daukat, baina bihotza Aretxabaletan, horregatik ahal dudan guztietan jaioterrirako bidea hartzen dut. Aretxabaleta herri jatorra da”.

Udaltzainburuari herrimina nabari zitzaion, ahal duen guztietan Aretxabaletara joaten dela esaterakoan; Jose Mari Eraña, Udaletzeko pertsonalburuari ez, ordea. “Harrigarria izan daiteke Aretxabaleta hain gertu eduki eta hain gutxitan joatea, agian gertutasun horregatik izango da. Betidanik izan dut Arrasaterako joera, bizi izatera etorri aurretik dexente ibiltzen nintzen hemen eta kuadrila ere bertan eginda neukan; beti ibili izan naiz gustora. 1979. urtean etorri nintzen bizi izatera eta erabakia hartzea ez zitzaidan gehiegi kostatu, Arra-

saterekiko neure joeraz gain, bertan lan egiten nuela kontuan hartu bainuen.

Herrimina ez da sekula galtzen, baina uste dut bertakotasuna hartuta dudala, alde horretatik berdin zait nahiz bateko nahiz besteko bezala azaltzea. Bi herriak konporatzerakoan Aretxabaleta gauza txiki bezala agertzen zait, atsegina goa zait hemengo konplexutasuna, erdi-hiri honetako bizitza urbanoa, aberatsagoa da. Etorri nintzenetik aldatuz joan da Arrasate, eta uste dut onera egin duela arlo askotan: hirigintzan, ingurugiroaren ikuspegitik... ez dakit, herri txukunagoa iruditzen zait, kultura eta aisialdirako aukera gehiago daude, tamaina egokikoa da, ez handia eta ez txikia, eta mendia ere bertan dago. Herri orekatua dela esango nuke”.

KANPOTIK IKUSITA

Alkateak, Udaltzainburuak eta Udaletzeko pertsonalburuak jaioterrria utzi zuten hona bizi izatera etortzeko, baina badira beste atxabaltar asko egunero-egunero eta finfin lanera etortzen direnak, Jesus Mari Herrasti kooperatibetako zuzendaria edo Nati Abasolo, Udal Euskaltegiko zuzendaria adibidez. “Nahia-



Jose Luis Etxebarria, Udaltzainburua.

◆ ◆ ◆ ◆


NATI ABASOLO
“Arrasatearren euskara, ondo egiten dutenena, polita da, baina ez da oso ugaria”

◆ ◆ ◆ ◆

JOSE LUIS ETXEBARRIA
“Herri biak elkarrengandik oso gertu daude, eta ez naiz distantzia fisikoaz hitzegiten ari”

go dut Aretxabaletan bizi izatea, herri txikien ezaugarriak eusten dielako oraindik, eza-gunen zirkulua handiagoa da, umeak kalean libreago ibil daitezke... Arrasaten ume txikiak ezin dira kalean bakarrik ibili, Aretxabaletan, aldiz, plazako joan-etorria bakarrik egin dezakete. Euskara munduari dagokionez, Aretxabaleta herri euskaldunagoa iruditzen zait, maila guztietan. Arrasatearren euskara, ondo egiten dutenena, polita da, baina ez da oso ugaria, 50 urtetik beherakoan artean, zail da interferentziarik gabeko hiztunak aurkitzea; nagusiena, ordea, atxabaltarrena bezain polita da”. Euskarari dabil Nati eta irakaskuntzan, beraz arrasatearren argitasunaz hitzegiteko moduan da, artaburuak ote dira? pertsona azkarak? “Orokorrean, uste dut arrasatearra pertsona zentratua eta orekatua dela”.

Atxabaltarrek jaioterrria eta bizilekuaz emandako iritziek ez dute Arrasate toki txarrean utzi, beharbada jende gehiagori galdetuz gero, erantzunak bestelakoak izango liriteke, edo akaso ez; edozein modutan, gorringoa eta zuringoa bezalakoak dira, kolorez eta gustoz desberdinak, baina arraultza osatzeko beharrezkoak.



Itamira baserrian maitasun handiz gordetzen da, erretratu zahar hau, eta ez da gutxiagotarako. Amandre hori **Ildefonsa Altuna Arregi** da, gaur egun Altamiran bizi direnen amandrea. Izatez, Zaldibar auzokoa zen, kaletarra, baina Altamirara ezkondu zen, eta 74 urterekin hil zen, gerra aurretik, 1934ean edo. Bere senarra **Pedro Berezibar Garitano** zen, eta urte batzuk beranduago hil zen, 1939an, 86 urterekin. Gerrate Karlistan Santa Kruz apaiza ere ezagututako izan behar zuen.

Amandrearen oinetan eserita dagoen neskatila **Albina Berezibar Altube** da, gaur egun Altamiralde etxean bizi dena, **Jesus Beltran de Guevara** praktikantearen emaztea. Pare bat, hiru bat urte edukiko zituen, eta hortik atera daiteke kontua erretratua orain 65 bat urte ateratako dela. Orduan



erretratua ez zen eguneroko gauza izaten, eta noizean behin paisajeari argazkiak ateratzera etortzen ziren erretratistetako batek atera zion etxe ondoko artepean goruetan zebilela. Erretatu horrek 2. saria irabazi ei

zuen Donostiako sariketa baten.

Garai hartako jaztera ere aipagarria da. Buruan daukan zapiari montera esaten zitzaion; ehunezko kamixaren gainetik, painueloa jatzten zen soinean

trabes gerrian sartuta, eta gaur egungo sostenik ez zenez, gonauntzak egiten zuen funtzio hori. Aurreko-mantala, berriz, luzea eta poltsiko handiduna izaten zen, eta horren azpitik, gona gorria edo beltza.

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Arreta handiko
sukaldea
Giro abegikorra

● Anna L. Florisbela Dos Santos

Pobreziaren feminizazioaren inguruan

Anna Lucia ekonomilaria da eta "Beltzen Mugimendu Bateratuaren" ordezkaria dugu Alemanian. Emakume beltzek, pobreziaren barruan bete duten bigarren mailako postutik izan duten indarra aztertu nahirik, hitzaldia eman zuen Arrasaten Emakumeen Asanbladak eta Komite Internazionalistek gonbidatua.

— Zer esan nahi du zure izenak?

— Beno, Anna Lucia Florisbela da nire izena. Baina, "dos Santos", Brasilen eta baita Hego Amerikan garai bateko Estatu esklabistaren arrasto da. Garai hartan beltzek, hau da, esklabuek euren jabearen abizena eramaten zuten eta elizarentzat lan egiten zutenek, adibidez, beti dos Santos eramaten zuten. Horregatik, nire guraso eta arbasoak elizaren esklabu izan zirela esan nahi du abizenak nire.

— Zein da pobreziaren feminizazioari buruz zuk defendatzen duzun teoria?

— Gaur egun, Beltzen mugimendu bateratuaren ordezkaria naiz Alemanian eta politikoki ere hori defendatzen dut. Hau da, berez orain arte utopia izan diren fakto-

reak: emakumeen eta beltzen berdintasun soziala, nire us-tez errealitate bihur daitezke. Maila horretan gauza asko lortu da, baina oraindik lan asko geratzen da egiteko.

— Pobreziaren barruan, zein izan da emakumearen papera?

— Dударik ez dago pobreziak guztiongan izan dela eragin zuzena: arraza, adin eta sexu guztietan. Baina, gizarte patriarkal batean, gizonak hartu ditu beti erabaki guztiak eta emakumea bigarren mailan egon da, askotan aginduak betetzen. Hau oso injustua da, munduan, non-bait, aberastasunik esistitu bada emakumearen partehartzeari esker izan delako eta puntu hau oso gutxitan hartu izan da kontutan. Horretaz gain, orain arte produkzio prozesuan nagusitu den modelua taylorismoa eta fordismoa izan dira. Gaur egun, badirudi flexibilitatea nagusitzen dela.

— Zein da aldatzeko da-
goen faktorerik garrantzitsue-
na?

— Emakumeak bere buruari, lanari, eta gizartean duen paperari buruzko kontzientzia da, beharbada, lehenbait lehen lortu behar dena.



Emakume bakoitzak bere buruari errespeto handia behar dio eta askok oraindik ez du horren kontzientziarik.

— Arraza desberdinek berezitasun propioak izan dituzte pobrezian?

— Gizartean eta baita pobreziaren barruan ere, egon den desberdintasun soziala eta etnikoa oso inportanteak dira. Nik, arraza beltzaren eskubideak defendatzen ditut, baina, hala ere, kontutan hartu behar da beste testuinguru baten barruan gaudela sartuta, beste arrazen testuinguruaren barruan. Horregatik, arraza bakoitzak bere berezitasunak izan ditu baina, denak testuinguru baten barruan.

— Zer inpresio hartu duzu Euskadi eta Arrasatez?

— Ez naiz aurretik egon

Arrasaten baina, orain arte ikusi dudana asko gustatu zait. Jakin izan dudanez, eskaldunok ere borrokan jarraitzen duzue euskal kultura defendatzeko eta horren barruan baita euskararen defentsan ere. Baina, hala ere badut sakonago ezagutzeko asmoa, ea helburu kultural hori soziala ere baden ezagutzeko.

— Zeintzuk dira hitzaldian azpimarratu dituzun puntuak?

— Izenburuak dioen bezala, pobreziaren feminizazioari buruz hitz egitera nator, baina pobre sentipen hori ez da biktima sentitzea, ekonomikoki pobre izatea bai-zik, eta oso argi utzi behar da hori. Bestalde, pobretasun hau historikoki izan den kolonialismo bati dago lotuta eta horren ondorioa da, prozesu luze horretan emakumearen paperak eta rola izan ditu bere aldaketak. Feminismoaren barruan eta herrialde baten aberastasunean, emakumeak izan duen funtzioa eta gaur egun duena ere azpimarratu nahi izaten ditut.

● "Utopia izan diren faktoreak: emakumeen eta beltzen berdintasun soziala errealitate bihur daitezke"

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- Donostian gela bat edo pisua behar da. Tfnoa: 79 47 09.
- Bi oheko gela eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Pisua edo logela behar da Arrasaten. Premia dut. Tfnoa: 88 90 59.
- Donostian hiru hilebetetarako pisu konpartitu bat behar dut. Tfnoa: 71 41 21.

Lana

- Lanak ordenadoren pasatzen dira. 150 PTA orriko. Tfnoa: 79 13 26. Maite.
- Leintz Akademian alemanezko, ingelesezko eta italiarrezko klase partikularak ematen dira. Tfnoa: 79 81 30 eta 79 51 09.
- Esperientziadun neskek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Tfnoa: (945) 44 53 31. Aramaio.

• Ingelesezko klase partikularak ematen dira. Mailak: ertaina eta altua. Tfnoa: 79 20 64.

• Andra bat prest atarte, bulego eta lokal komertzialak garbiketako. Tfnoa: 77 09 56. Mariñi.

• REM eta OHoko klase partikularak emango nituzke. Tfnoa: 79 48 09. Itziar.

Salerosketak

• Opel Corsa GT 1.300, SS-Z zuria salgai. Tfnoa: 79 42 78.

• Nikon F-801 argazki makina salgai. Oso ondo zaindua eta oso prezio onean. Tfnoa: 77 12 28. Jabier.

• Nintendo kotsola, eurokonektorea behar duena, salgai 6.000 PTAtan. Hainbat joku 3.000-5.000 PTA artean. Tfnoa: 71 40 19. Igor.

• Seat Panda, SS-0408-S, egoera onean salgai. Dei egin denda orduetan 79 86 75 tfnora.

• Bigarren eskuko mobil-home bat erosiko nuke. Tfnoa: 77 04 98.

Denetarik

• Hies-Ekimenak sexualitateari buruzko argazkiak ateratzeko modeloak behar ditu. Emakumezkoak nahiz gizonezkoak. Ez zaitez beldurtu eta etorri gugana. Jende askoren laguntza behar dugu! Tfnoa: 79 26 99.

• Asteburuetan, kotxez, Madril-Arrasate eta Arrasate-Madril bidaia egiten dutenekin kontaktatu nahi dut. Dei egin 79 53 12 tfnora. Asier.

• Egunero goizeko 8etarako heltzeko kotxea behar dut Donostian. Gastuak erdibana. Tfnoa: 71 41 21.

• Egunero Gasteiztik Arrasatera joan-etorria egiteko kotxean tokia behar dut. Tfnoa: 79 85 71.

• Leioara egunero joaten naiz kotxez. Zuk ere bidaia bera egiten baduzu, elkarrekin joan gaitzke; kotxea baduzu hobeto. Dei egin asteburu eguerdian 79 50 20. Imanol.

LORAMENDI KIROLAK

• Reebok

• Saucony

• Adidas


• Rombo

• Joma

• Ellesse

• John Smith

**Gertu dauzkagu zuretzat
modelo berriak**



Entrenamendua • Lehiaketa • Aisialdia

• Nike

• L.A.Gear

• Avia

• Asics

• Rox

• Converse

• Mito


Maiatzaren 1a Plaza ARRASATE Tfnoa: 79 97 24

Z E R N A H I A G O ?

Arantxi Iturbe

Arrabala dendakoa

- Soldaduzkaren alde ala kontra? Kontra, noski.
- Liburu asko irakurtzen duzu? Lehen bai, baina orain ez dut denborarik.
- Elurra gustatzen? Bai, baina baita eguzkia ere.
- Ondo doa denda? Bai, momentuz behintzat oso gustora nago.
- Herriko jendea ala kanpokoa etortzen da gehiago? Herrikoa normalean.
- Ze motatako musika gustatzen zaizu? Denetik entzuten dut.
- Auzoek nahiko zerbitzu dute Arrasaten? Beno, autobus zerbitzua adibidez beharrezkoa da, eta gehienek ez dute.
- Bizi izateko herri ona da? Bai, Arrasateko jendea gustatzen zait batez ere, baina aukeratzeko izango banu, itsasondoan dagoen bat herri aukeratuko nuke.
- Zer eskatuko zenioke lagun bati? Granada aldean duen pisua astebetetz neuri uztea.
- Egin duzun azken mesedea? Ez naiz gogorutzen. Nire umeari egunero egiten diot mesede asko.
- Larunbatetan jende asko etortzen da? Goizean bai, arratsaldetan oso gutxi.
- Abioian ibili zara? Bai, Londresera eta Ibizara joateko.
- Eskutitz asko idazten duzu? Bat ere ez, lotsatu egiten naiz.
- Kafea azukrarekin ala barik? Barik.
- Ze egunkari irakurtzen duzu? Egin.
- Zapatak ala zapatilak? Normalean botak erabiltzen ditut.
- Aukeratzekotan, ze lan aukeratu zenuke? Orain daukadana, baina denboraldi baterako.
- Supermerkatua ala denda txikia? Denda txikia.
- Zer jende motak erosten ditu hemengo erropak? Gazteek, batez ere.



BERTSOAK

LOIOLA IRRATIA

Loiola irratia ospatsuari sarri naiz entzuten egon, zeinek ez daki irratian hartan Alberto bat nola dagon; Arrasate Press-en bidez nahi diot eskeini mila zorion; Leon Xalbador zenari nago irabazten ote dion.

Nik bertsuetan ezin eginik maiz egin izan dut poto, ixil ixilik egongo banitz neuretzat zenbat hobeto; zure aldetik horrelakorik gertatu beldurrik ez du; irratilari alaia zera, bejaundizula Alberto.

JOSE MANUEL ARRIOLA



Aste Gazte

Ikastaroak

- Argazkigintza ikastaroa, hastapen maila. Maiatzaren 3tik ekainaren 3ra, astelehen eta asteazkenetan. 7etatik 9etara. Matrikula: 1.000 PTA. Plaza mugatuak.

- LH. I. Azterketa libreak:
- Teknikari Laguntzaile titulua lortzeko azterketa libreak: matrikula epea apirilaren 13tik 23rarte. Gipuzkoan Eibar, Irun nahiz Donostian egin daitezke matrikulak. Deialdia 93-04-02 EHAAn argitaratu da.

Bekak

- 93-94 ikasturtearen EAEarentzat interesgarri diren gaietan atzerrian espezializazio ikasketak egiteko bekak. Unibetsitateko goimailako tituludunei zuzenduak. Epea: apirilak 26. EHA 93-04-01.

- "Juan de Otaola y P. de Saracho" beka. Eskultura, pintura nahiz grabatu proiektu bat burutzeko. Dirulaguntza: 500.000 PTA. Epea: maiatzak 18.

- 94-95 ikasturtean Esta-

tu Batuetan nahiz Britainia Handian ikasketak sakontzeko bekak. Lizentziatuei zuzenduak. Epea: ekainak 30.

Lehiaketak

- Tudelako Hiria pintura lehiaketa. Gai librea. Sariak: 400.000 eta 200.000 PTA. Epea: apirilak 26.

- Umorezko Diseinuaren Nazioarteko XV. Jaialdia. Angleten (Iparralde). Uztailak 23-abuz. 8. modalitateak: karikatura, grafismoa, "gag", ... Lanak aurkezteko epea: maiatzak 20.

"Gaztaroak jaiotzetik 80 urterarte edo gehiago iraun dezake, adinak ez baitu mugatzen gaztaroa, bizitzaren aurrean pertsonak duen jarrera bat da eta"

RAMONCIN



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

Gurasoon etxeko lanak

“— Aizan, neskatila! Opor hauetan etxeko lanik badinagu, ala?”

— Ez, aita. Oraingoan ez. Zuek badituzuela esan digute, ordea.

— Eh??... Eta hi, mutiko, hik ere ez?”

— Ezta nik ere. Zuei toka-tzen zaizuela entzun dut”.


Eta horrela izango balitz!

Oporrak datoz, motzak, baina oporrak, azken finean. Eguna lasai igaro eta betiko martxa izkinaratzeko bezalako momentuak datoz. Baina, aurten, guk geuk, guraso-ok, “etxeko lanak” ezin ditugu ahaztu.

“— Ai, ene! Bai, ohea egin, alfonbra astindu, kristalak garbitu...”

— Ez, ez. Ipuinak kontatu, partxisean jolastu, elkarrizketak sortu...

Imaginatzen duzu zelako harridura aurpegia topatuko



genukeen, gure haurra ipuin bat kontatuz esnatuko bage-nu? Edo gosaria berarekin prestatu, edo bazkalorduan tertulixa egingo bage-nu? Ba, horixe!”.

Presarik gabe, erloju bari-k. Eguneroko arazoak kajo-ian gordeta eta “Eguzkia da-goela? ba, goazenan kalera,

mendira, hondartzara. Hemen barraskiko bat, hor lehen lo-rak, han elurra.

Euria, berriz? Kendu hau-tsa xakeari eta jolas dezagun, ezetz irabazi! Edo, zinera noa, bahator? Edo, jo, mutil, “dra-go-i bola” hau holakoa duk beti?”.

Harridura aurpegia irriba-

rea bihurtuko da eta opor os-tean, eguneroko arazoz bete-riko kajoia beste indar bate-kin zabalduko dugu berriro.

EDURNE ERAUSKIN

**S. F. X. IKASTOLAKO
ZUZENDARIA**



Adi gazte!

18 urte eginda badituzu eta AEDk uztailean antolatzen dituen **Udalekuetan begirale**



izatea nahi baduzu, dei egin apirilaren 30a baino lehen **79 54 46** tfnora. **Zure zain gaude!**

ALDIZKARIAK

"Ozpelak"
aldizkariaren
1. zenbakia

Arrasateko Zutikek "Ozpelak" izeneko aldizkariaren lehen zenbakia kaleratu du. 14 orriko aldizkari honetan Emakumeen Asanblada, Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak, Egizan eta Ekin taldeek Udaletxean aurkeztutako emakumearen laguntza-zerbitzuari buruzko proiektua, S.O.S. Racismo eta Xenofobia Arrasaten, HIES Ekimena Quierete-Quiereme lema, Martxoaren 8rako Gazte Batzordeak antolatutako ekintzak, Libertad de Expresión, Con la iglesia hemos topado eta Zerrajerako erlojua geldik! izeneko artikulua irakur daitezke, besteak beste. Gaztelaraz zein eukaraz idatzi dira eta herriko seme-alabek idazten dute.

Aldizkaria hartzeko interesa duzenok, Jai Zale elkartearen jasoko duzue informazio gehiago.



Gurendane Etxebarria

Ikasteko aukera Mediatekan

Ahizke-Cim-eko mediatekako arduraduna dugu Gurendane. Hizkuntzak geure kabuz ikasteko aukera ematen digu mediatekak eta horretarako, ikusentzutekoak, liburuak... material osoa gure esku dugu.

— Zer da mediateka bat?

— Liburutegi baten antzekoa da baina medio desberdinak daude mediateka batean, ez liburuak bakarrik: bideoak, ordenagailua, aldizkariak, maila desberdinetako liburuak... Orduan, helburua medio desberdinen bidez hizkuntza ikastea izango da, ingelesa, frantsesa zein alemana.

— Eta nori dago zuzenduta?

— Batez ere helduei, 18 urtetik gorakoentzat. Batzutan umeak ere etorri izan dira baina ez dago horretarako prestatuta. Mediateka, bakoitzak bere kabuz lan egiteko prestatuta dago eta umeak oraindik ez daude horretan ohituta. Horregatik, hasiera batean eurakin lan egitea izan daiteke irtenbidea gero ohitu daitezen. Esan bezala, umeekin egiten da lana, baina oso gutxi, ipuinak kontatuz, liburuak irakurriz, abestiak kantatuz... Eta seigarren eta zazpigarrenekoekin modu desberdinean egiten dugu lan; joku



desberdinak daude eta ordenagailuarekin lan egiteko aukera ematen digu. Bestalde, mediatekaren erabilera bultzatzeko irakasleen inplikazioa eskatzen dugu; ikasle batek arazoren bat badauka, etor dadila mediatekara eta aukera dezala bere medioa, jarraitu beharreko bidea. Azken finean, ikasleak ikusi behar du ikasteko prozesua berea izan behar dela, parte hartu behar duela eta ez dela klaseetara joatea bakarrik.

— Zeintzuk etortzen dira gehien?

— Bertan ikasten daudenak batez ere. Kanpoko jendea ere etortzen da, maila txikiagoan. Bertan ez ikasi eta interesatuta dauden guztiek 2.000 pezeta ordaindu beharko dute urte osorako. Lau egunetan,

asteazkena ezik, Setatik 7etara egoten da zabalik. Normalean ni egoten naiz hemen eta aholkuak ematen ditut, ingelesez batez ere, gehien menperatzen dudana hizkuntza delako. Norberak duen mailaren arabera, liburu desberdinak gomendatzen dizkiot. Baina, normalean egunero etortzen direnak, badakite sartu eta bakoitzak medio bat aukera dezakeela eta ezer galdetu gabe erabil ditzaketela dauden materiale guztiak.


— Zabaldu zenetik, espero zenuten arrakasta izan du?

— Beno, orain dela lau urte zabaldu zen eta askoz ere materiale gutxiago zegoen. Hala ere, urteekin osatuz joan den arren, ikasle kopurua ez da gehiegi igo, oso motela izan da prozesua. Baina, kontutan izan behar dugu ikaslearentzat gauza berria dela eta ez dagoela modu honetan funtzionatzen ohituta. Iaz inkesta bat egin genuen eta jende gehienak ezagutzen zuen, baina denbora faltaz ez zirela etortzen esaten zuten. Momentu honetan mediateka erabiltzen duten kanpoko ikasleak 7 dira eta bertakoak 50 gutxigorabehera. Hizkuntza bat ikasten dabilzan guztiei esango nieke animatzeko eta etortzeko mediateka ezagutzeraz.

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

Onduline TXOMIN HERIZ




eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE

• ESAERA ZAHARRA •


*“Aste guztirak balira jai!
Alperrak hori nabi”*

• JEROGLIFIKOA •



Nondik dator Fidel?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Garagartzako baserria. 6. Higuin hotsa. 8. Mandatari. 10. Emakumezko gurasoa. 11. (Ald.) Ortze. 12. Lakio. 14. Multzoko elementu bakoitza. 17. Zital. 18. Arantzazuko apostoluen egilea.

Bertikalak 1. Amakoi. 3. Adore. 3. Tramite. 4. Gaur. 5. Uhuria. 6. Gonbaraketa egiteko aditzondoa. 7. Mintzalari. 9. (Ald.) Aldare. 13. Mesedez. 15. (Ald.) Atzeka arraundu. 16. (Ald.) Ontzat emana.

• HOROSKOPOA •

Aries Ilea jausten hasi zaizu. Seguraski asko pentsatzeagatik izango dela.

Taurus Datorren astea zorrez jositakoa izango duzu, baina ez zaizu dirurik agertuko.

Gemini Bihar jai da, beraz, ez ezazu iratzargailua alperrik ipini.

Cancer Telebistako programa batek eragin handia izango du zugan.

Leo Euria beharbada egingo du, baina edurrik ez. Ezin eskiatzera joan.

Virgo Zure antz ikarragarria duen pertsona batekin egingo duzu topo datorren astean.

Libra Kontuz! Gezurtia errena baino lehenago harrapatzen baita.

Scorpio Lo falta handiaz igaroko duzu astea. Badakizu, deskantsatu.

Sagitarious Pixka bat aztoratuta nabaritzen zaitut, baina ez dago zergatia jakiterik.

Capricorn Amak zigortu egingo zaitu aste osoa ontzi garbitzen ipiniz.

Aquarius Etxean notengatik botako ditzuten bronka ez da makala izango.

Piscis Erdi gaixorik ibiliko zara, baina ez dut uste gauza serioa izango denik.

MAHAINGURUA

“Euskal Herriko egoera nahasiaren azterketa eta irtenbideak”

Apirilaren 21ean (ASTEAZKENA)
Monterronen. Arratsaldeko 7etan

Partaideak:

TXEMA AUZMENDI
Elkarriko partaidea


JUAN MARI TOLOSA

Gesto por la pazeko partaidea

Moderatzaile: Jon Sarasua



• DORLETA VILLARREN GOMENDIOA •



Xacobeo'93 dela eta, Santiagorako erromesaldia antolatu du San Viator Ikastolak, ekainaren 19tik 26ra, eta uztailaren 10etik 18ra. Horietan parte hartzea gomendatzen digu Dorletak, bertako irakasleak. "Aukera ona da ikastolako jendearekin harremanak sendotzeko; bestalde, oinez denez beste bide batzuk eta jende ezberdina ezagutzeko, eta nola ez, bide batez kirol apur bat egiteko". Lehengo etapa autobusez egingo litzateke Samoseraino, eta haindik aurrerakoa oinez, sei etapatan. Animatzen bazara, prestatu oinetako eroak eta eman izena lehen bait lehen. Edozeinentzat dago zabalik.

• PROGRAMAZIOA •



18 igandea

8.45 Mondragol:
Mondra-Sodupe

Aste Santuetako oporrak direla eta, apirilaren 8tik 18ra bitartean oporrak izango ditugu ATBn eta ez da programaziorik egongo. Dena dela, datorren 18an, igandea, Mondra-Sodupe partiduaren laburpena izango duzue Mondragol saloan, gaueko 8.45etan. Eta datorren 19tik aurrera, eguneroko programazioa ikusi izango duzue.

• SOLUZIOAK •


Kubatik.

JEROGIFIKOA

16. Eo.
Hizlari: 9. Aratia, 13. Oiol, 15. Aiz.
3. Izapide, 4. Su, 5. Ulu, 6. Are, 7.
Bertikalak: 1. Amazulo, 2. Kemen,
14. Unitatea, 17. Dotor, 18. Oieiza.
Mezulan, 10. Ama, 11. Urez, 12. Zepo.
Hortontak: 1. Aksiu, 6. Ah, 8.

GURUTZEGRAMA

• KOMIKIA •



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

C O N F O R T



D I E S E L

Renault 21 Diesela.

1.990.000 PTatik hasita.

Diesel Hilabetea Renaulten

RENAULT. Deselean bizi izateko plazerra.

Gehiengo prezio gomendatua B.E.Z.arekin, garraioa, matrikulazio-zerga eta promozioa barne. Hilabete amaiera arte baliogarria Penintsulan eta Balearetan, stock-ean dauden ibilgailuentzat. Bestelako eskaintzekin ez da bateragarria. Informazio gehiago jasotzeko, dei egin: 900 100 500.

Zatoz ikustera:

MECA, S.A.

**ARRASATEKO
BANATZAILEA**